

ULTRAERAMANGARRIA IKASLEEI MAILEGATZEKO KONTRATUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Sailak DBHko eta Batxilergoko ikasleei utzitako ordenagailu eramangarriak, ikastetxean matrikulatuta dauden bitartean ikasleei lagunduko dieten lan-tresnak dira. Matrikulazioa amaitzen denean edo ikastetxeak hala eskatzen duenean, ordenagailua ikastetxeari itzuli behar zaio. Horregatik, ikasleak ondo zaindu behar du, jarraian azaltzen diren jardunbideei jarraituz. Hala izan ezean, eta kalteren bat balego, bere hondar-balioa erreklamatuko zaio.

Ultraeramangarri horiek RENTING kontratu bat dakarte berekin. Kontratu hau sinatzen duten ikastetxe honetan matrikulatutako ikaslearen tutoreek adierazi dute irakurri eta ulertu dutela ikastetxeko web orrian eskuragarri dagoen ikasleari ordenagailu eramangarria mailegatzeko gaitzen duen Sailburuordearen ebazpena.

IKASLEEN ULTRAERAMANGARRIEN ERABILERA ARDURATSUA

Hezkuntza Sailak ikasleei emandako ultraeramangarriak ikastetxean matrikulatuta dauden bitartean ikasleei lagunduko dieten lan-tresna dira. Ikasleak jarraibide hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. **Ekipoa ez da ikaslearen jabetzakoa,** baina ikasleak berea balitz bezala zaindu eta leku seguruan eduki behar du, jarraian datozen jardunbide egokiei eta premisei jarraituz. Bestela, zigorra jaso lezake.
2. **Kontu handiz ibiliko da ekipamenduarekin,** eta leku seguruan gordeko du; izan ere, gaizki erabiliz gero (pantaila hautsia, teklatuan likidoak isurtzea,) edo galera-ebasketa izanez gero, zigorra izango du.
3. **Auker dago portaila klaseko armairu elektrifikatuan uztea kurtso osoan bestela batera egunero kargatu beharko du etxean,** ultraportatila eskola-egun osoan erabili ahal izateko.
4. **Hezkuntza-prozesuarekin lotutako eduki guztiak hodeian gordeko ditu.** Ez du ezer gordeko lokalean (eramangarrian) eta ez du inolako informazio pertsonalik gordeko (argazkiak, bideoak, bidalketak) edozein unetan, konponketa baten aurrean, fabrikaren balioetara berrezarri baitaiteke.
5. **Ez du programarik instalatuko** eta ez du software-aldaketarik egingo ikastetxeko informatika-arduradunaren baimenik gabe.
6. **Ez du manipulatu eta ez du karkasa irekiko, ezta informatika-dendetan konpondu ere.** Bi kasuetan, zigorra ezarriko zaio, ordenagailuak bermea galduko lukeelako.
7. Ikastetxetik kanpo erabiltzen duenean, **wifi sare seguru** batera konektatuko du.
8. **Ordenagailuak edozein arrazoiengatik huts egiten badu,** ikastetxera eramango du, eta **informatika-arduradunarengana eramango du,** ikastetxeak ezarritako protokoloari jarraituz.
9. **Ikasleak edozein arrazoiengatik** (ikastetxea aldatzea, Hezkuntza aroa amaitzea, bizilekua aldatzea, etab.) **ikastetxean baja hartzen,** edo ikastetxeak edozein arrazoiengatik (renting-aldiaren amaiera, formateatzea, etab.) eskatzen badiu, ikasleak ikastetxeari emango dio, ezarritako protokoloari jarraituz. Bestela, zigorra jasoko du.

MAILEGU KONTRATUAREN BALDINTZAK (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera)

Gorabeheretarako prozedura

Mailegu-eramangarrien babesa bermatzeko, aseguru-poliza bat ezarri da. Aseguruak eramangarri guztiak estaltzen ditu, bai berriak bai aurreko kontratukoak.

Garrantzitsua da azpimarratzea aseguruak ez dituela estaltzen:

- Ekipoa gaizki erabiltzeak eragindako kalteak, hala nola behar ez bezala manipulatzek, baimendu gabeko softwarea instalatzea edo gomendatutako baldintzetatik kanpo erabiltzea.
- Ekipoa galtzea, lapurreta edo ebasketaren ebidentziarik gabe.
- Erabiltzaileak ekipoa ez itzultzea, arrazoa edozein dela ere.

Gorabeheraren bat gertatuz gero, ordenagailu eramangarriaren akatsa edo konponketa bada, beste eramangarri bat emango zaio ikasleari, gorabehera baloratu bitartean. Ikasleak gaizki erabili duela ikusiz gero, tutoreak bere gain hartu beharko du konponketaren kostua, edo, konponketak eramangarriaren hondar-balioa gaingitzen badu, bere gain hartu beharko du hondar-balio horren ordainketa. Tutoreak, Hezkuntza Sailak igorritako ordainketa-gutun bat jasoko du, eramangarriaren konponketa-kostuari edo hondar-balioari dagokiona. Ordainketa-gutun horretan adierazitako zenbatekoa ordaintzen ez bada, Hezkuntza Sailak blokeatu egingo du eta mailegatutako eramangarri berria kenduko du.

Gailua galtzen bada edo itzultzen ez bada, familiak galdutako eramangarriaren hondar-balioa ordaindu beharko du. Tutoreak, Hezkuntza Sailak igorritako ordainketa-gutun bat jasoko du, eramangarriaren hondar-balioari dagokiona. Ez da ordenagailu eramangarri berririk emango ordainketa-gutunean eskatutako zenbatekoa ordaindu arte.

Lapurreta-kasuak ikastetxean egiaztatu beharko dira, dagokion salaketaren bidez. Salaketarik ez badago, benetan galdutzat edo ebasketatzat joko da, eta tutoreek hartu beharko dute birjarpenaren ardura.

Ikastetxearen Kodea: 010351	Ikastetxearen izena: Laudio BHI
Lehenengo tutorearen izen-abizenak:	
Lehenengo tutorearen NAN/AIZ:	
Bigarren tutorearen izen-abizenak:	
Bigarren tutorearen NAN/AIZ:	
Ikaslearen izen-abizenak:	
Ultraportatilaren etiketa:	Ikaslearen maila:

Tutoreen sinadurak:

Data:

Ikastetxeko Zuzendaria:

Ikastetxearen zigilua